

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK aholkularitza eskainiko dio Hego Koreako Kooperatibistak Prestatzeko Institutuari

2014/02/25

Mondragon Unibertsitatea aukeratu dute Seuleko Kooperatibistak Prestatzeko Institutua, Magic Bridge Co-operative Management Institute (HBM) izenekoa, abian jarri eta garatzeko aholkularitza eskaintzeko. Ekimen hori Hego Koreako 400 enpresa inguruk bultzatu dute. Guztiak ere kooperatiba gisa eratu diren tamaina txikiko enpresak, mikro-eteak, dira, eta ia guztiak elikagaien sektorekoak. Herrialde horretan kooperatibismoaren haziak ereitea da asmoa eta, horretarako, enpresak nahiz langileak kooperatibismoaren alorrean trebatu nahi dira eta baita ere langabezia dauden gazteek kooperatibak sortzea bultzatu.

Lankidetzaz hori gauzatzeko, pasa den ostiral honetan sinatu da Seulen, institutu horren egoitzan, kooperazioaren oinarriak finkatzen dituen bi erakundeon arteko lankidetzaz-hitzarmena. Alde batetik, Mondragon Unibertsitateko Errektore losu Zabalak sinatu du, eta beste aldetik, berriz, HBM Institutoko lehendakaria den den Park Kyung-seo-k.

Mondragon Unibertsitatearen balio kooperatibistak ez ezik, langilea enpresako jabe bihurtzen duen kooperatibismoaren negozio-eredu berritzailean duen esperientzia ere hartu du kontuan Seuleko Kooperatibistak Prestatzeko Institutuak. Helburua? MONDRAGONeko kooperatiben esperientzia, eredu bezala erabili, Hego Korean, kooperatibak garatzeko. Horrekin batera, baina, unibertsitatearen hezkuntza-eredu berezia eta ikerketaren transferentzia ere izan dira Mondragon Unibertsitatearen eskaintza baloratzeko funtsezko faktoreak.

Lankidetzaz-bideak

Aurrerantzean, Mondragon Unibertsitateko irakasleek kooperatibismoari lotutako gaietan trebatuko dituzte Hego Koreako langileak: abian jartzeko estrategiak, kooperatibismoa gauzatzeko bideak, etab. Hitzarmena areago doa, ordea, trebakuntza Asiako ekialdeko eta hego-ekialdeko langileengana zabaltzeko aukera ere jasotzen baitu.

Mondragon Unibertsitateak erronka interesgarria du aurrean: kooperatibismoan esperientziarik ez duen herrialde batean horretarako oinarriak ereitea, eta gizarte horretan enpresa, zerbitzu eta ideia berriak abian jartzeko ekintzazailtza-izpiritua sustatzea. Azken batean, herrialde horretan nagusi den ekonomia produktiboaren mentalitatea aldatu eta ekonomia-eredu sozialago baterantz bideratzea.

Asmo hori hezurramitzeko, Mondragon Unibertsitateko irakasleek Koreako langileen beharizan profesionaletara egokitutako trebakuntza prestatuko dute, eta eurekin partekatuko dituzte kooperatiba-mugimenduari buruzko esperientzia eta jokabide egokiak, 2030. urtea helmugatzen hartuta Koreako kooperatiba mugimendua prestatu eta indartzen laguntzeko.

